

# AHALDUNTZE BERTSO ESKOLA

## 2020-2021 ikasturtea

**Izena emateko epea: 2020ko irailaren 23tik urriaren 4ra arte**

Bertsolaritzan emakumeak plazan izateak duen garrantziaz jabeturik, eta emakumeen jendaurreratzean ematen diren ezaugarri orokorrak kontutan hartuta, bertsolari gisa plazan aurrera egin nahi duten emakumeentzat lagungarri izateko eskainiko da Ahalduntze Bertso Eskola, seigarrenez.

Parte-hartzaile kopurua murriztu behar dugunez, bertsolariei eskainiko zaie soilik oraingoan; dena den, pasa den urtean gai-jartzaileekin abiatutako bidean jarraitzeko, laster iragarriko dugu gai-jartzaileentzat espresuki sortutako eskaintza.

Ahalduntze Bertso Eskolan parte har dezakete bat-batekoan maila ezberdina duten bertsolariek. Ikasturte osoko konpromisoa eskatuko du, bai asistentzian eta baita parte hartzean ere.

### Ezaugarriak

- ☉ Maiztasuna: hilean behin, larunbat goizez (10:00etatik 14:00etara). Ikasturtea 2020ko urrian hasi eta 2021eko ekainean bukatuko da.
- ☉ Lekua: Amasa-Villabonako Subijana etxean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan (Kale Nagusia, 70. 20150 Amasa-Villabona).
- ☉ Saioteko gidari lanetan: Ainhoa Aranburu Puente, Aintzane Irazusta Arzallus eta Amaia Agirre Arrastoa.
- ☉ Partaide kopurua: gutxienez 8 eta gehienez 27.

### Oinarriak

1. **Konpromisoa:** Ikasturte osoan zehar eskoletara etortzea eta dinamikan parte-hartzea eskatuko zaie bertso-eskolan izena eman duten partaideei.
2. **Esperimentazioa** da bertso-eskola honen oinarria. Metodologia ere egokitzen joango gara taldearen bilakaeraren arabera.
3. **Aniztasuna:** Emakumeen arteko eta ikuspegien arteko aniztasuna eta errespetua oinarri izango da, epairik gabeko begirada landuz. Zaintza erdigunean jarriko da.

### Egutegia

#### 2020

Urriak 17  
Azaroak 21  
Abenduak 19

#### 2021

Urtarrilak 16  
Otsailak 27  
Martxoak 27  
Apirilak 17  
Maiatzak 15  
Ekainak 19

**Izen-ematea:**

- Bertsozale Elkarteko [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian, formularioa betez. Bertan, datu hauek eskatuko zaizkizu:
  - o Zure izen-abizenak, telefonoa eta e-maila.
  - o Matrikula kobratzeko zure kontu korrontearen 20 zenbakiak.
  - o Matrikula zenbat kuotatan ordaindu nahi duzun.
  - o Datu babeserako lege oharra onartzea.
  - o Oharrak uzteko aukera duzu bertan.
- Izena emateko epea:
  - o 2020ko irailaren 23an hasiko da, 9:00etan, eta urriaren 4an itxiko da.
  - o Taldea osatzeko izen-emate ordena hartuko da kontutan. 27 lagunentzako tokia dago.
- Taldearen osaketaren berri urriaren 5ean emango da, eta matrikula kobratuko da. Matrikula 150 € da.
- Izena emateak bertso-eskolaren oinarriak onartzen direla adierazten du.